

Zor merkatua

Batez besteko saria, Espainako 10 urterako zorra, urrian=%1,073; Diferentziala: 104op

Inbertsoreak errenta finkoko tituluak saltzen ari dira inflazio-arriskuarekiko babesteko eta honek bonoen kotizazio prezioen igoera orokortua ekarri du; Espainiakoa %1,5aren gainetik kokatu da honezkero, eta Alemaniakoa maila positibora bueltatu da.


Bigarren mailako merkatuan **Espainiaren 10 urterako zorrari eskatutako batez besteko errendimendua %1,073an** kokatu da **urrian**. Pasa den urteko irailean %2,031era iritsi eta gero, beherazko bilakaera argia erakuste hasi zen, abuztuan %1,017ko minimoa lortu arte. Aldiz, harrezkero, bi hilabetez jarraian zertxobait egin du gora. **Azaroan goranzko joera** hau bizkortu egin da eta ondorioz, eguneko kotizazioa %1,5a gainditu du honezkero.

Alemaniako 10 urterako zorrari eskatutako errendimendua %-0,090 izatera heldu zen **uztailean** (*brexitari* buruzko erreferendumaren ostean), baina harrezkero, gorazko bilakaera erakusten hasi zen, **urrian % +0,037an** kokatu arte. Kotizazioa positiboa da berriro ere, hiru hilabetez negatiboa izan eta gero. Ekonomia nagusien artean, bakarrik Japoniak zorraren kotizazioa kokatzen da gaur egun balio negatiboetan. Espainiako bonoarekin, eta orokorrean bono guztiekin, gertatzen ari den bezala, Alemaniako bonoaren kotizazioa ere, **azaroan**, aurreko hilekoa baino indartsuagoa den **gorazko bilakaera** erakusten ari da.

Urrian, Espainiako zorrari eskatutako errendimendua Alemaniako zorrari eskatutakoa baino gutxiago igo da, ondorioz, bien arteko batez besteko **arisku prima** zertxobait murriztu da eta **104op**-tan kokatu da. **Azaroan**, ordea, arrisku primak **berriro gora** egiten duela dirudi.

10 urterako bonuaren errendimendua

Interes-tasa



Arrisku-prima

Alemaniako bonuarekiko diferentziala

